Eguraldirik aproposena

Ba al duzu ohiturarik eguraldiaren iragarpena kontsultatzeko? Oraingoan, iragarpen bati erreparatuko diogu, Euskadi Irratiko orduz orduko albistegi laburrean.

Sekuentzia honetan, hau egin dezakezu:

- **Hiztegi esanguratsua landu.**
- **Entzungaiaren gaineko ulermena landu.**
- **Graduazioa adierazteko *-(r)ik -ena* egitura errepasatu.**
- ***-na* banatzailea ezagutu eta landu.**
- **Eguraldi-iragarpen bat egin, idatziz eta ahoz.**



Pixabay

Entzun aurretik

BAKARKA

1. Hiztegiarekin jolasean

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Jarraian, sekuentziaren entzungaian adituko dituzun hitz eta esapide batzuk daude. Lot itzazu dagokien definizioarekin.

1. Giro eguzkitsua

2. Ekaitza

3. Udako itxura

4. Behe-lainoa

5. Goi-hodei finak

6. Hegoaldeko haizea

7. Trumoi-hodeiak

8. Zaparrada mardulak

9. Kazkabarra

10. Giro nahasia

11. Uda-garaiko eguraldia

a) Udan ohikoa den eguraldia: beroa, eguzkitsua eta tenperatura altuekin.

b) Zerutik erortzen diren izotz-puskak.

c) Hodei ilunak, ekaitzak sortzen dituztenak.

d) Eguzkia nagusi den eta laino gutxi dagoen eguraldia.

e) Lurretik oso gertu sortzen den lainoa, ikusmena murrizten duena.

f) Eguraldi aldakorra edo ezegonkorra, hainbat fenomeno izan ditzakeena.

g) Euria, haize bortitza, trumoiak edo tximistak izan ditzakeen fenomeno meteorologikoa.

h) Hegoaldetik datorren haizea; askotan, tenperatura igoarazten du.

i) Denbora laburrean egiten duen euri ugari eta indartsua.

j) *Uda-garaiko eguraldia gogoraraztzen duen egoera; beroa eta eguzkitsua izaten da.*

k) Zeruan oso altu dauden eta itxura mehea duten hodeiak.

Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

BAKARKA

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Beheko esapideak, eguraldi onarekin ala txarrarekin erlazionatzen dituzu?

1. Eguraldi ona

2. Eguraldi txarra

uda-garaiko eguraldia

hegoaldeko haizea

behe-lainoa

zaparrada mardulak

giro nahasia

udako itxura

tenperatura igo

ekaitza

giro eguzkitsua

goi-hodei finak

kazkabarra

trumoi-hodeiak

Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

Entzun bitartean

2. Zer-nolako eguraldia izango dugu gaur?

BAKARKA

Orain Euskadi Irratiko albistegiko tarte bat entzungo duzu, eguraldiari buruzkoa. Entzun arretaz, eta aukeratu mapa egokia.

A



B



eguraldiaren iragarpena

guau gure audioa

Adimen artifizialak egindako irudiak

Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

BAKARKA

Erantzun galderei.

1. Non dago tenperaturarik baxuena?

2. Zerk lagunduko du tenperatura igotzen?

3. Zergatik izango dira tenperatura baxuagoak kostaldean?

4. Zein fenomeno meteorologiko espero d(ir)a arratsaldean?

Kazetari batek nahastu egin ditu albistegitik hartutako oharrak. Entzun berriro iragarpena, eta zuzendu akatsak.

1. Bilbon 7 °C daude.
2. Kostaldean 28 °C-ra iritsiko dira.
3. Iparraldeko haizea ibiliko da.
4. Arratsaldean ez da ekaitzik izango.
5. Kazkabarra egitea ezinezkoa da.



Unsplash

1. *Bilbon 14 °C daude.*

2. _____

3. _____

4. _____

5. _____

Elkartu ikaskide batekin eta alderatu/hobetu erantzunak. Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

Entzun ondoren

TALDEAN

3. Arreta jarri zer esan duten

Elkartu ikaskide batekin, eta erreparatu entzungaiko esaldi hauetan markatutako hitzei. Zer adierazten dute atzizki horiek? Ondoren, osatu esaldiak, eta sortu hiru esaldi gehiago egitura horiek erabilita.

"... une honetan, **baxuena** Gasteizen dago: bertan, 7 °C baino ez daude; ... eta Bilbon **epelena**: bertan, 14 °C daude"

-ena: _____

_____

1. Euskal Herriko hiririk euritsuena _____ da.
2. Euskal Herriko herririk hotzena _____ da.
3. Euskal Herriko parajerik hezeena _____ da.
4. _____
5. _____
6. _____

"Donostian eta Baionan, **12na** gradu daude"

-na: _____

_____

Zenbat gradu daude Donostian? Eta Baionan?

1. Lau ikaslek _____ liburu hartu dituzte. (2)
2. Hiru lagunek _____ sagar jan dituzte. (4)
3. Bi taldek _____ puntu lortu dituzte. (10)
4. _____
5. _____
6. _____

Partekatu erantzunak talde handian.
Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

GOGORATU! Graduazioa adierazi: -ENA (SUPERLATIBOA)

Elementu bat beste batzuen artean nabarmentzeko erabiltzen dugu. Superlatiboa eratzeko, molde hauek dira erabilienak:
1. Partitiboan jartzea izena: *hilabeterik hotzena*
2. Ø marka ere erabili izan da: *hilabete hotzena*

izena + (-(r)ik) + adjektiboa + -ena

Biak dira zuzenak, eta biek dute esanahi bera.

-NA BANATZAILEA

Zenbatzaile kardinalei *-na* atzizkia erantsiz lortzen dira banatzaileak; *zenbana?* galderari erantzuten diote:
bana, bina, bosna (borzna), hamarna, ehuna, ehun eta seina, berrehun eta hamaseina, launa mila, bosna milioi...
(*batna, *bostna, *milana, *lau milana, *bost miliona...).
Adibideak:
Milioi bana egokitu zaie loterian.
Bosna mila euroko bermea ordainduta irten ziren kalera.

TALDEAN

4. Euskal herriko eguraldi-iragarpena

Jarri hiruko taldeetan. Talde bakoitzak hurrengo egunetarako eguraldi-iragarpen bat prestatuko du, idatziz; horretarako, banatu irudiak.

1



2



3



4



5



eguraldi-iragarpena.blogspot.com

Erabili sekuentzian landutako baliabideak!

Eman irakasleari zuzentzeko.

TALDEAN

Orain, irratiko esatariak zaretela imaginatuko duzue; presta ezazue eguraldi-iragarpena ahoz emateko. Egin aurkezpena talde handian. Gainontzeko ikaskideek asmatu beharko dute zein mapari egiten diozuen erreferentzia.



Pixabay

Iragarpen guztiak entzun eta gero, egokitu mapa bat aurkezpen bakoitzari.

ERANTZUNAK

1. Hiztegiarekin jolasean

- 1- d; 2- g; 3- j; 4- e; 5- k; 6- h; 7- c; 8- i; 9- b; 10- f; 11- a
- 1. **Eguraldi ona**: uda garaiko eguraldia, hegoaldeko haizea, udako itxura, tenperatura igo, giro eguzkitsua, goi-hodei finak
  2. **Eguraldi txarra**: behe-lainoa, giro nahasia, zaparrada mardulak, ekaitza, trumoi-hodeiak, kazkabarra

2. Zer-nolako eguraldia izango dugu gaur?

- A
- 1- Tenperaturarik baxuena Gasteizen dago, 7 °C daude.
  2- Giro eguzkitsuak eta hegoaldeko haizeak lagunduko dute tenperatura igotzen.
  3- Brisa dela-eta, kostaldean tenperaturak baxuagoak izango dira.
  4- Arratsaldean trumoi-hodeiak, zaparrada mardulak eta kazkabarra espero dira.
- 1- Bilbon 14 °C daude
  2- Barnealdean; kostaldean, tenperatura 25 °C-tik behera gelditukо da.
  3- Hegoaldeko haizea ibiliko da.
  4- Arratsaldean trumoi-hodeiak garatuko dira; hortaz, baliteke ekaitzak egotea.
  5- Kazkabarra botatzea ez da baztertzen.

3. Arreta jarri zer esan duten

- -ena: elementu bat beste batzuen artean nabarmentzeko erabiltzen da.
  Adibidez: Euskal Herriko hiririk euritsuena Bilbo da.
- -na: banatzaileek adierazten dute pertsona edo elementu bakoitzak kopuru bera duela.
  Donostian 12 °C daude, eta Baionan ere bai.
  1- bina; 2- launa; 3- hamarna.

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Iragarpenaren berri zehatza jasotzeko. Zer eguraldi uste den egingo duela jakiteko.
Ohi bezala. Normalean bezala.
Arratsalde-iluntzerako. Arratsalderako eta arratsaldeko azken orduetarako.
Udako itxura hartuko du. Udakoa bezalakoa izango da.
Behe-lainoa sortuko da. Lurretik gertu sortzen den lainoa.
Trumoi-hodeiak garatzen hasiko dira. Hodei ilunak, ekaitza dakartenak.
Zaparrada mardul. Euri asko.
Kazkabarra botatzea. Izotz-prezipitazioa, txingorra botatzea.

TRANSKRIPZIOA

Ahotsa offean: Euskadi Irratian, eguraldia eta trafikoa.
Aurkezlea: Errepide-sare nagusira begiratuta ez dagoela apartekorik, horixe Segurtasun Sailean errepikatu digutena. Eta, eguraldiari dagokionez, datozen orduetarako iragarpenaren berri zehatza jasotzeko, bat egin behar dugu, ohi bezala, Euskalmetekin. Bertatik, zuzenean. Maialen Martija. Egun on.
Maialen Martija: Egun on.
Aurkezlea: Ze tenperatura ditugu une honetan?
Maialen Martija: Bueno, ba, une honetan, baxuena Gasteizen dago: bertan 7 °C baino ez daude; Iruñean, 11; Donostian eta Baionan, 12na gradu daude; eta Bilbon epelena: bertan, 14 °C daude.
Aurkezlea: Eta oraingoz behintzat, esango dugu datozen orduetan giro eguzkitsua nagusituko dela, nahiz eta arratsalde-iluntzerako ekaitzen bat garatuko den, ez?
Maialen Martija: Hori da, bai. Udako itxura hartuko du eguraldiak, gaur, eguneko ordurik gehienetan. Behe-lainoa sortuko da, eta sortu da jada ohiko lekuetan, baina, jaso bezain laster, goi-hodei finak baino ez ditugu zeruan ikusiko. Beraz, giroa eguzkitsua izango da, eta tenperatura igotzen hasiko da.
Gainera, gaur hegoaldeko haizea ibiliko da, eta honek tenperaturari igotzen lagunduko dio. Gauzak horrela, beroenak altuak izango dira gaur, 25 °C-ra iritsiko dira termometroak, ia denean; soilik kostaldean, brisa dela-eta, beherago gelditukо dira, baina barnealdeko toki askotan 26 edota (eta/edo) 28 °C-ra ere igoko dira maximoak.
Arratsaldean zehar, bai, trumoi-hodeiak garatzen hasiko dira, eta zenbait tokitan baliteke zaparrada mardulen bat botatzea. Ez dugu, gainera, kazkabarra botatzea baztertzen. Beraz, eguna giro nahasiarekin bukatuko da zenbait tokitan, baina, ordura arte, uda-garaiko eguraldiaz gozatzeko aukera izango dugu.
Aurkezlea: Eskerrik asko, Maialen. Gero arte.
Maialen Martija: Zuri. Agur.